



Zaldibiako Udala

UDALETXE BERRIA –PLAZA INGURUNEA IDEAI LEHIAKETA

EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

2017ko azaroaren 22an egindako bileran, besteak beste, honako erabakia hartu zuela jakinarazi nahi da bere ondorioak izan ditzan:

3.-.Gelditu diren bi proposamenak aztertzea. Erabakia hartzea.

Erakusketa publikoaren emaitzak jakin ondoren, herritarren ordezkarien botuak emantzat hartuko dira eta epaimahaiko beste kideei hitza eman eta bozka egin ondoren emaitza honela gelditzen da:

Emaitza hauetara iristeko epaimahaiko kide bakoitzak bere puntuazioa eman du baloratu beharreko hiru aspektutan. Herritarren ordezkariak, berriz, bakarrik bi aspektutan, gero puntuazio denak batu eta puntuazio eman dutenen artean zatitu, lehengo bi aspektutan zati 9 eta hirugarrengoan zati 6.

Azkeneko aspektua puntuatzeko oinarrietan jartzen zen formula aplikatu da.

BIZALDI:

- *Espazio publikoaren antolamenduaren proposamena: **18,3 puntu***
- *Egokitasun arkitektonikoa eta hiri-ingurunearekiko egokitzapena. Emandako irtenbidearen kalitatea eta xede duen errealitatean nola integratzen den. **37,72 puntu.***
- *Proposatutako eraikuntzaren modelo energetikoa: **10,83 puntu***
- *Ordainsarearen proposamena ekonomikoa: **1,25 puntu.***

GUZTIRA: 68,13

LAUKITUTA:

- *Espazio publikoaren antolamenduaren proposamena: **17,00 puntu***
- *Egokitasun arkitektonikoa eta hiri-ingurunearekiko egokitzapena. Emandako irtenbidearen kalitatea eta xede duen errealitatean nola integratzen den. **34,16 puntu.***
- *Proposatutako eraikuntzaren modelo energetikoa: **15,50 puntu***
- *Ordainsarearen proposamena ekonomikoa: **5,00 puntu.***

GUZTIRA: 71,66



Zaldibiako Udala

*Puntuazioak ikusi ondoren, Epaimahaiak, aho batez, **ERABAKI DU:***

- 1.- Hiruren (BIZALDI, LAUKITUTA, ZER BERRI? ZALDIBIA BERRI) Identifikazio kartazalak irekitzea, harremanetan jartzeko 4.000€ ordaindu behar direlako.*
- 2.- Alkate jaunari **PROPOSATZEA: Udaletxe berria Gauzatzeko Proiektua idaztea LAUKITUTA** le mari esleitzea.*

**Zaldibian, 2017ko azaroaren 29an,
LEHENDAKARIAK**